ta dago ta auxegatik kendu da. Ona, iratiño abestitz (abestuitz zar ori:

Nik bai-ditut mortuetan
ardiyak artzañarekin;
itxasuan amar ontzi
beren mariñelarekin;
Kataluñia'n amar mando
zillar-monedarekin.

Joseba Andoni abeak abesti edo kanta au atzaldutian esan euskun gaste baten oñaza edo atsebagia agertzen ebala: aberats-aberatsa zan eta bere matiak ezeban bera matetan: ¿zein ardura gaste gaxo ari beriak ziran mortu edo mendijetako ardijak, itxasoko ontzijak eta zidarez zamau edo *kargetako* manduak?

Lentxu esan dogu abesti oni abestitz barija ezari yakola. Abestitz aberkoi ederra, ederik ba-dago, dauka orain. Eleizalde'tar Koldobika olerkari ta idazle zolijak idatzi dau Au jakiñaz igari edo-dozube, irakurle orek, zelakua dan abestitz barijau.

Eder, garbi, argija zan Euzkadi au orbandu, lotu, zikindu *zan arotzalekeri-orbanaz, ta zorigatxu ikusijaz oñazez*, atsebagez abestuten dau abertzaliak.

Ona orain erestija, ta urengo abestitza:

¡OÑAZEZ!

(NABARA-ERESIJA)



Aldi baten gure ama,
Aberri maiagarija,
semiok gekusan edur
barija baxen garbija:
Orain ostera,
itxasi yako
arotzen dongakerija!
Au tamal mingotsa!
au oñaze latza!
ori bandu dala Aberija!
Aldi baten lilli jayo
ederrtasunez jantzija,
aldi baten baratz bikain,
dongaentzako ertsija:
Orraintxu bariz,
baltzez josita,
kutsatu yako irudija...
Ez negarik, ama!
zeu garbitziaren
emongo dogu bixija!

EUZKELDUN NESKATILAI

EMAKUMIEN JAKIN-BIARAK

"Euzko-Deya" zuzentzen daben mutillak laketu (*permitidu*) dauskube-ta, ekin dayogun geure arluari.

¿Zer jakin biar-dau emakumiak?

Ora or arazo zalla: ¿Ondo ete-dago emakumia jakituna ixatia, ala obe da etxekandera bati dagokijona bakarik jakitia? Bildur-bage esango dot, ori aitatutia lotsagarija dala emakumientzat, eta ona emen zegatija.

Gixonak lez emakumiak be, bere gogua dauko, ta gogua lura lakoxia da: landuten ezpa-da eztau arnaririk (*frutorik*) emoten. Gixonak lez emakumiak be, artezu biar-daun adimena dauko, zuzendu biar-daun guramena, azpiratu biar dauzan naikunde oker ta nabarkerijak, erabilli biar-dauzan ogasunak... ¿gixonari baño erazago ete-yako, ezer ikasi-bage, biarkun orek betetia? ¿Ez-ete-dira emakumiak etxeogasunak ondatu ala eusten dabezanak? ¿Ez-ete-dira emakumiak *seme-alabeak menduten dabezanak?* ¿Ez ete-dira emamiak, itz baten esateko, gixasemien lenengo orkartiak (*pausuak*) arteztuten dabezanak?

Orain baño lenago, arazo onetzaz bai-dot iñardun, garantzi andikuna deritxot-eta. Neskatillaen ikaskintzea, benazkua, sendua, zabala ta sakona, alik osoena, ixan biar-da beti. Alegiña egin biar-da bere gogua sendotuteko ta bere adimena apainduteko. Eta ori eskatu biar-dogu sendi edo *pamilijaren* ixenian, osasunaren ixenian, amatasunaren ixenian, ezkontzaren ixenian, etxiaren ixenian...

Eta neskatillai esango dautsegu: ikasi egixube, zuben adimena landu egixube; baña gauza bi biar-biarezkuak yatzubez: lenengua da, zuben ikastiakaitik eztozubezala alaba, emazte ala ama-biarkunak laga biar onek lenenguak ixan biar dira-ta; bigarena, zuben jakindasuna dala-ta etzariela aropuztu biar. Gauza bi onek beteta, gura dozuben aña ikasi egiemoten. Gixonak lez emakumiak be, arteztu biar-dauzan naixube, ta iñok ezin-ixango dautzube ezer esan.

Emakume gaste bat ezautu dot, bere gauza gustijetan maitagarija. Bein, bere semiari ikastolean emondako ikaskixuna zuzentzen iñardubala, senarak ikusi ta ikaratuta itandu eutson: ¿Baña euk lateraz ete-dakin?—Bai, ene maitia,—erantzun eutson emazte zoruntsubak.

¡Apaldasunaren erakuspen edera!

Neskatillak: ikasi-zaliak ixan zaitezę, baña ez sasi-jakitunak; zurak, baña ez arnak. Eta olan zuben senide ta aizkidiak maite-ixango zabez (zaitube), ta iñaka (burla) gaiztoen bildur etzaire ixango.

ETXAKIN.

Durango'n eulia

Geuk gura dogun erara.
Beretzat lain lan be eztago
Atsotxubak ixan iruteko
Lenaukuak baxen bizkorago,
Ta gure eule zinduak daukake
Lana len baño ugarijago:
Zubok, bariz, gelak merkiago
Diantzakezubez ta apañago.

LARIZONDO.

(Tabira.)